

### 3. FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektuan funtsezko bazkideak ditugu, hauek gure aplikazioan haien katalogoa eskaintzen duten enpresak dira, eta ezinbestekoak dira proiektua aurrera eramateko. Azken finean, gure enpresa haien produktuen salmentan oinarritzen delako. Aplikazioa hasieran garatzen laguntzeko bazkide bat bilatuko dugu; eta horrez gain, gure aplikazioa herriko merkataritza sustatzeko tresna bezala erabiliko denez, herriko merkataritzaren bultzatzaileak diren erakunde publikoekin (udalak) lan egingo dugu.



Guk beste enpresekin **aliantzak** egingo ditugu; batez ere, atzerriko enpresekin. Hauekin komunikatzeko ingelez maila altua daukagu. Honek lagunduko gaitu atzerriko enpresekin ondo komunikatzen eta aliantza handiak egiten. Haien produktuak eta katalogoa gure aplikazioan eskainiz, gure aplikazioko eskaintza-katalogoa zabaltzen dute eta horrela bezero-talde gehiagori zabaltzea gaituzke.

**Aplikazioaren zabalkuntza:** Hainbat dendeke promozionatu dezakete gure aplikazioa, haiek azaldu dezakete dendan produktuak ikusi ahal dituztela eta gero etxean hobeto pentsatuta erosketa egin gure aplikazioaren bidez. **Hornitzaileen** eremua begiratzuz, guk ez ditugu lehengaiak edo produktu bukatuak behar; baina hornitzailetzat gurekin lan egiten duten enpresak jo ditzakegu (herriko komertzioak), haien produktuak kudeatzen ditugu-eta.

